Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manoli Irastorza Mujika

Ordizia, Gipuzkoa (1920-2013)



Aurkibidea

Biografia



Baserrian jaioa, aita Zaldibiakoa zuen. Moja frantsesetan ibili zen San Josen, 14 urtera arte. Zortzi seme-alaba izan zituen. Gaztetan baserriko lanean aritu zen, eta, horren ondoren, neskame Zumarragan. Handik bueltan zerbitzaria izan zen Zirkulon, eta ezkondu ostean dendari ere izan zen.

Zintak

ORD-008

- **Proiektua**: Ordiziako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitz
- **Data**: 2004-01-23
- **Iraupena**: 53 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Emalea**: Ordiziako Udala

Pasarteak

1. Guraso baserritarrak; errotan jaioa

- **Erref**: ORD-008/002
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:00:36. **Bukatu**: 00:02:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama Beasainmendikoa eta aita Zaldibiakoa zituen, biak baserritarrak. 8 seme-alaba izan zituen Ordiziako senarrarekin. Gorriñe aserrikoa da, errotan jaio zen. 8 anai-arrebako familiakoa da.

2. Gaztetan ume-zain

- **Erref**: ORD-008/004
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:04:22

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Gaztetan ume-zain ibiltzen zen. Garia neurtzeko neurri bat aipatzen du.

3. 14 urterekin Zumarragara ume-zain

- **Erref**: ORD-008/006
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:06:44

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolan Moja Frantzesetan ibili zen 14 urtera arte. Eskola non zegoen aipatzen du. 14 urterekin Zumarragara joan zen ume-zain eta urte eta erdi egin zuen bertan.

4. Ordiziako Zirkulon, neskame eta zerbitzari

- **Erref**: ORD-008/009
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:09:07. **Bukatu**: 00:09:50

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Zumarragatik (neskametzatik) Ordiziara bueltatu eta Zirkulon hasi zen neskame eta zerbitzari moduan.

5. Anai-arrebekin erdaraz egiteko ohitura

- **Erref**: ORD-008/011
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:12:14. **Bukatu**: 00:12:50

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lagunekin erdaraz egiten zuen, baita anai-arrebekin ere. Gurasoekin euskaraz.

6. Azoketara gazta saltzera

- **Erref**: ORD-008/012
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:13:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Manoli Ordiziako eta inguruko herrietako azoketara joaten zen gazta saltzera.

7. Kanpotar ugari azokara saltzera

- **Erref**: ORD-008/014
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:14:42. **Bukatu**: 00:15:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Azokako saltzaileak Bilbo, Eibar eta Nafarroatik joaten ziren, besteak beste. Manoliren aitona eta osaba Aralarren ibiltzen ziren artzain.

8. Gaztaren prozesua

- **Erref**: ORD-008/015
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:15:42. **Bukatu**: 00:17:28

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Gazta nola egiten zuten azaltzen du.

9. Eguneroko otorduetako jakiak

- **Erref**: ORD-008/019
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:19:54. **Bukatu**: 00:21:19

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Eguneroko otorduetan eltzekoa jaten zuten eta igandeetan garbantzuak. Taloa eta esnea gosaltzen zuten. Gosete garaian taloa garrantzitsua zen. Artzain familiakoak izanik ez zitzaien zezinarik sekula falta izan.

10. Txerria hildakoan, odolki eta mondejuak

- **Erref**: ORD-008/020
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:21:20. **Bukatu**: 00:22:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Etxean ardiak, behiak, oiloak, eta abar izaten zituzten. Urtean txerri bat hiltzen zuten eta odolkiak eta mondejuak auzokoei banatzeko ohitura zuten.

11. Egun berezietako otorduak

- **Erref**: ORD-008/022
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Erramu egunean arkumea, urteberri egunean oiloa eta oilasko errea eta Eguberrietan konpota jaten zuten.

12. Arropak eskuz garbitu behar

- **Erref**: ORD-008/023
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:23:53. **Bukatu**: 00:26:03

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Arropak errekan garbitzen zituzten. Etxean kanala zuten eta han aklaratzen zuten arropa. Lixiba egiten zuten. Arropak lisatzeko, ikatzezko plantxa erabiltzen zuten. Argia eta ura beti ezagutu ditu etxean.

13. Eskolara uniformez jantzita

- **Erref**: ORD-008/024
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:26:03. **Bukatu**: 00:26:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Eskolara uniformez jantzita joaten zen Manoli. Langan abarkak utzi eta alpargatak janzten zituzten kalerako, baina behin baino gehiagotan lapurtu zizkieten aldatzeko utzitakoak.

14. Amona mondejugilea

- **Erref**: ORD-008/025
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:27:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amona mondejugile ezaguna zen, bi alaba tabernariak zituen eta haientzako asko egin ohi zuen.

15. Irin eta patataren kontrabandoa

- **Erref**: ORD-008/027
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:28:07. **Bukatu**: 00:29:28

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Patata eta irinaren kontrabandoa egiten zen Nafarroatik. Manoliren ama gauez ibiltzen zen Lazkaora joan eta irin kontrabandoan.

16. Inguruetako erromeria eta festetara

- **Erref**: ORD-008/030
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:30:24. **Bukatu**: 00:32:10

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromeriara Larraitzera joaten ziren oinez. Ordiziako plazan eta arboledan musika banda egoten zen. Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Santa Ana jaiak aipatzen ditu.

17. Sokasaltoan jolasean

- **Erref**: ORD-008/031
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:32:10. **Bukatu**: 00:33:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan sokasaltoan aritzen ziren, besteak beste. Lagunak auzokoak zituen, baina ez zuen jolas askorik egiten, esnea eraman behar izaten zuen etxera.

18. Murumendiko istorioa

- **Erref**: ORD-008/032
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:36:23

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Etxean amonak kontatutako Murumendiko ipuina kontatzen du.

19. Lanera atzerritar asko Ordiziara

- **Erref**: ORD-008/034
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:37:00. **Bukatu**: 00:38:18

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Ordizian galiziar asko sartu zen lantegiak zirela eta. Manoliren senitartean baziren galiziarrekin elkartutakoak.

20. Aitak eskolari garrantzia ematen zion

- **Erref**: ORD-008/035
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:38:18. **Bukatu**: 00:38:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Noizbehinka aitak egunkaria eramaten zuen etxera. Aitari esker joan ziren Manoli eta anai-arrebak eskolara, garrantzi handia ematen zion eskolari eta.

21. Ordiziako tabernak

- **Erref**: ORD-008/036
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:38:58. **Bukatu**: 00:40:04

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Ordiziako tabernak izendatzen ditu. Emakumeek ez zuten tabernarako joerarik.

22. Manoliren jostailu denda

- **Erref**: ORD-008/039
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:41:52. **Bukatu**: 00:44:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Manolik jostailu denda zuen eta egur eta burnizko jostailuak saltzen zituen. Jostailuak Bilbotik ekartzen zizkien. Barruko arropa eta mantalak ere saltzen zituen.

23. Gaur egungo euskara

- **Erref**: ORD-008/040
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:46:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaur egungo euskararen inguruko kontuak.

24. "Hika" egitea, errespetu falta

- **Erref**: ORD-008/041
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:46:40. **Bukatu**: 00:47:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Gurasoei "hika" egitea errespetu falta izaten zen, neskentzako itsusia zela esaten zion amonak.

Transkripzioa
- Zuk gero hika itten zenduen? - Bai. - Amakin eta? - Ez, amakin ez. - Amonak? - Amonak berez… - Zuei? - Bai, baiño guk hika ez ziguen uzten. - Zuei ez? - Itsusie zala ta. - Itsusie zala? - Bai. Itsusie zala

hori, ta… - Baiño amonak zuri bai, itten zizun? - Baiño hika ez e? - Ez? - Amonak eta amak eta hoik danak zuka. Horregatik, eak ere in behar zuen, guri gogor eitteko. Bai. Ez zitzaien gustatzen, “hori itsusie den neskantzako oain”. Ta gero, klaro… bai, gero arte!... - Baiño beak esaten zizun “hoi itsusie den”, hika esaten zizun beak. - A bai, bai, bai. - Eta geo zuk anai-arrebakin eta hika? - Ez, ez, ez. - Erderaz? - Erderaz guk jo ta ke, bai.</p>

25. Sendabelarrak

- **Erref**: ORD-008/044
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:50:05. **Bukatu**: 00:51:07

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Sendabelarrak egiten zituzten etxean, erredurentzako eta beste zenbait gauzatarako. Belar ezberdinak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Gero, Manoli, zeak eta, ukenduik eta hola etxen iten al zenduen?
- Ez, ez.
- Ez? Eta belarrak eta hola hartu edo? Infusiok edo?
- Bai, este, bai, bai, bai. Eta iten zun gure amak zea bat, este…
- Pomada bat bezela?
- Pomada bat, belarrakin ta iten zun. Errentzako itten zun jeneralen. Zeatik baserrin su bajuk, eta askotan erre, askotan eskutan ta, akordatzen naiz ni, ta anaiek’e bai, ta batek belaunen ta…
- Errex ingo zan?
- Erre, eta pomada izaten zan.
- Ta zerkin itten zun akordatzen al zea?
- Ez, ez.
- Eta geo, enplastok eta hola, berbena…
- Bai, bai, berbena. Hoi bai.
- Hoik zertako?
- Katarrok, este, katarrokin, bai…
- Eta infusiok? Ba pasmobelarranak, eo osiñanak eo?
- Ba manzanilla. Manzanilla, o anix, anix’de bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com